

Seber Altube Ikastolako Kode Etikoa

Kontaktua

www.seberaltubeikastola.eus

seber@ikastola.eus

946270003

Zearreta Kalea z/g, Gernika-Lumo

APLIKAGARRITASUNA

Kode Etiko hau **Seber Altube Ikastola S.Koop. sozietatean —aurrerantzean, Kooperatiba— aplikatuko da**, eta hartako langile, bolondres, monitore, zuzendari eta gobernu-organoetako kide guztiak lotetsiko ditu, baita plantillan sartuta ez dauden langile edo laguntzaile guztiak ere.

Kooperatibaren administrazio-organoak babesten du kode hau, eta Betearazpen Batzordeak du betetzen dela gainbegiratzearen ardura, horretarako sortua baita. Kooperatibari zerbitzuak ematen dizkieten enpresa edo pertsona azpikontratatuerei ere betetzeko eskatuko zaie, kontratu bidez.

Helburua

Kooperatibaren asmoa da langile guztien jokabidea legearen araberakoa izatea, profesionala, etikoa eta arduratsua, beharrezkoa baita gure izen ona eta sinesgarritasuna ez galtzeko eta indartzeko, gure balio-katean parte hartzen duten edo eragiten duten interes-talde guztien aurrean —ikasleak, langileak, hornitzaileak, negozio-eredua garatzen dugun sozietateak eta bazkideak—.

Printzipioak eta balioak

Kooperatibako kide guztiek ulertu eta bete behar dute kode honetan lan-ingurunean eta negozioaren esparruan jarduteko moduz jasotakoa. Konpainiaren barruko lan-harremanek **printzipio hauek** dituzte oinarri:

- Legezketasuna: enpresaren eta langileen arteko legezko harremanak lege-aginduek betez gauzatu behar dira.
- Errespetu, ekitate eta duintasun erabatekoa, langile, laguntzaile, bazkide, hornitzaile, lehiakide eta Kooperatibari lotutako gainerako hirugarrenetikiko tratuan.
- Gardentasuna, objektibotasuna eta profesionaltasuna, jarduera guztien garapenean eta interes-taldeekiko harremanetan.
- Intimitatea, datuen babesa eta isilpeko informazioa.
- Osasunarekiko, segurtasunarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa.

Kooperatibako langile eta laguntzaile guztiek ezagutu eta errespetatu behar dituzte **printzipio** horiek, eta barneratu eta beren jarduera guztietan islatu behar dituzte.

1. Legezketasuna: legea eta barne-araudia zorrotz betetzea

Legea obeditu eta bete behar da, baita Kooperatibako barne-araudia ere. Ez da legez kanpoko jardunbiderik onartzen, ezta araudiaren ez-betetzetik ere; beraz, egoera horietakoren bat hautematen bada, berorren berri eman beharko da, behar bezala.

Indarrean diren **prozedurak eta politikak** bete beharko dira, eta, aldaketa- edo hobekuntza-beharrik identifikatuz gero, dagokion arduradunari proposatu ahal izango zaizkio.

Langile edo hirugarren batek legez kanpoko jarduera, arau-hauste edo araudiaren ez-betetze bat salatzen badu, ez da haren aurkako inolako errepresaliarik onartuko.

2. Errespetu, ekitate eta duintasun erabatekoa, langile, laguntzaile, bazkide, hornitzaile, lehiakide eta Kooperatibari lotutako gainerako hirugarrenetikiko tratuan

Kooperatibaren eta bere langileen jardueretan erabat eta etengabe errespetatuko dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako giza eskubideak eta askatasun publikoak.

Kooperatibako kideek errespetuz, profesionalki eta adeitasunez tratatu behar dute elkar, lan-giro atsegina eta segurua sortzeko, pertsonak beren onena ematera animatzeko eta gizarte-giro egokia eta errespetuzko bizikidetzak lortzen laguntzeko. Orobat, errespetuan eta lankidetzan oinarrituko dira Kooperatibako kideen eta hornitzaile, kontratista, bazkide komertzial edo kanpoko laguntzaileen arteko harremanak.

Lankidetzak eta talde-lana ezinbestekoak dira Kooperatibak bere helburuak lor ditzan eta ahalik eta ondoen aprobetxatu ditzan erakundearen gaitasunak, baliabideak, ezagutzak, trebetasunak eta esperientzia. Beraz, erakundeak lankidetzak eta talde-lana bultzatu, ahalbidetu eta sustatzen ditu, edozein dela ere jardueraren area funtzionala.

Ez da onartuko Kooperatibako langileen edo harekin lotutako hirugarrenen kontrako jokabide iraingarriak, larderiazkoak, diskriminatzaileak, maltzurriak, umiliagarriak, mespretxuzkoak, jazarpenazkoak eta abar. Horrelako jokabiderik hautemanek gero, salatu egingo da. Gizabanako eta entitate guztiak diskriminaziorik gabe eta objektibotasunez tratatuko dira, eta debekatuta dago haietako inori informazio pribilegiatua eta mesede-tratua ematea.

3. Hautaketa, sustapena eta ebaluazioa

Kooperatibak trebetasun- eta gaitasun-irizpide objektiboak ezarriko ditu langileak hautatu eta sustatzeko.

Hautaketarekin eta sustapenarekin lotutako erabakiak merezimenduan egongo dira oinarrituta, baita baldintza eta balorazio objektibo eta gardenetan ere. Langileek ezagutu egin beharko dituzte garapen eta aurrerapen profesionalerako erabiltzen diren metodologia eta prozedura.

Kooperatibak konpromisoa hartzen du beharrezko bitartekoak jartzeko, bere pertsonen ikasten eta prestatzen nahiz ezagutzak eta gaitasunak eguneratzen laguntzeko, beren karrera profesionalen aurrera egin dezaten, eta ahalik eta balio-ekarpenik handiena egin dezaten, bezeroen, kontsumitzaileen eta, oro har, gizartearen mesedetan.

4. Gardentasuna, objektibotasuna eta profesionaltasuna, jarduera guztien garapenean eta interes-taldeen harremanetan

Kooperatibak, bere langileek, laguntzaileek, zuzendariek eta administrazio-organotako kideek **etikan, zintotasunean, profesionaltasunean eta gardentasunean** oinarrituko dituzte beren arteko harremanak zein hirugarrenekikoak:

Finantza-informazioaren fidagarritasuna

- Ezin dira faltsutu, ezkutatu edo simulatu kontabilitateko datuak, idazpenak eta eragiketak, eta ezin da kontabilitate bikoitza izan, helburua bada ordainketak ez egitea edo legez kanpoko mozkinak lortzea, Ogasun Publikoaren edo Gizarte Segurantzaren kaltetan.
- Kontratututako eragiketak **zehatz-mehatz eta zorrotz** kontabilizatuko dira, eta irizpide bera erabiliko da eskatutako artxibo eta erregistroekin. Kontabilitatearen ardura duten langileek Kooperatibaren ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela hartu behar dute aintzat, kontabilitate-informazioa egitean.

- Une oro egokitzat jotzen diren **barne-kontrolak eta kudeaketa-sistemak** ezarriko dira, finantza-informazioaren fidagarritasuna eta erakundearen erregistroen zehaztasuna bermatzeko.

Lehiakideekiko harremanak

- **Lehia legitimoa eta zintzoa** egingo da, lehiakideak diren gizabanako edo erakundeei inolako kalterik egin gabe. Debehatuta dago lehia desleialaren jardunbide oro, eta aktiboki zainduko da Kooperatibak bere jarduerak egiten dituen herrialdeetan lehia defendatzeko aplikagarriak diren legeak betetzen direla.

Hornitzaileekiko harremanak

- Kooperatibako langileek harreman etikoa, legezkoa eta errespetuzkoa izango dute ondasunen eta zerbitzuen hornitzaileekin.
- Kooperatibarentzat lan egiten duten hornitzaileek konpromisoa hartu beharko dute, kontratatuta dituzten langile guztien giza eskubideak eta lan-eskubideak errespetatzeko.
- Erosketa- eta hornikuntza-jarduera orotan, zorrotz beteko dira konpainian indarrean diren arauak eta prozedurak. Esparru horretan hartutako erabaki guztiak onetsi egin behar dira; hau da, justifikagarriak, frogagarriak eta egiaztagarriak izan beharko dute, hirugarrenek edo Kooperatibako kontrol-departamentuek berrikusten badituzte.
- Kooperatibako langileak behartuta daude konpainiak bere hornikuntza-katearen inguruan ezarritako baldintzei buruzko informazio komertzialki sentikorra babestera.
- Kooperatibako langileek ezin dute oparirik, hobaririk, mesederik edo ordainik eskaini, eman, eskatu edo onartu, edozein dela ere haien izaera, ez zuzenean ez zeharka, ez eskudirutan, ez gauzatan, baldin eta eragina izan badezakete beren karguaren eginkizunekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuan. Oparirik edo hobaririk jaso bada, itzuli egin beharko da; eta, itzuli ezin bada, Giza Baliabideen departamentuari emango zaio, interes sozialeko helburuetarako erabil dezan. Gainera, departamentu horrek jokabide hori izan duten konpainia guztien artxibo bat sortuko du.
- Salbuespen gisa, opariak ematea eta onartzea baimenduko da, inguruabar hauek aldi berean gertatzen direnean:
 - Balio ekonomiko oso txikia edo sinbolikoa izatea.
 - Kortesiak opariak edo publizitate-opariak izatea.
 - Legeak edo oro har onartuta dauden merkataritza-jarduerak debehatuta ez egotea.
- Kooperatibari eskainitako bidaiak, hitzaldiak, azoketara joateko aukera eta abar onartuko dira, baldin eta Kooperatibarekin merkataritza-harremana ezartzea edo hobetzea bada helburua, langile jakin bati ez bazaizkio zuzenean ematen eta, betiere, alde aurretik onartzeko baimena ematen bada.

Bezeroekiko harremanak

- Merkataritza-jarduerak garatzean, Kooperatibako langileek estandar objektiboetan oinarrituta sustatuko dituzte konpainiaren produktuak, haien baldintzak eta ezaugarriak faltsutu gabe. Sustapen-jarduerak argi eta garbi egingo dira, bezeroei edo hirugarrenei nahastea eragin diezaiekeen informazio faltsurik eta engainagarririk eman gabe.

- Kooperatibak marketin arduratsuaren irizpideen arabera egiten ditu sustapen- eta salmenta-ekintzak.
- Kooperatibak uneoro bermatu behar du bezeroen datuak isilpean eta babestuta gordeko direla. Kooperatibako langile guztiek bete behar dituzte indarreko legerian eta barne-araudian datu pertsonalei buruz ezarritako segurtasun-prozedurak. Ez zaie oparirik, gonbidapenik, hobaririk, zerbitzurik edo mesederik eskainiko ezein gizabanako edo erakunderi, baldin eta eragina izan badezakete haien merkataritza-harremanen edo harreman profesionalen objektibotasunean eta/edo inpartzialtasunean, Kooperatibaren eta haren inguruaren aldeko konpromiso bat edo mesede bat itzultzeko beharra sortzen badu, eta/edo iruzurra, legezkotasunik eza, jardunbide ez-etikoak edo hirugarrenentzako kaltea ekartzen badute.
 - Bezeroekiko harreman guztietan gardentasun-, objektibotasun- eta profesionaltasun-baldintzak betetze aldera, Kooperatibak **Babesletza-, laguntza- eta lankidetz-politika** bat du, baita **Ustelkeriaren aurkako politika** ere, eta langile, zuzendari eta administrazio-organoetako kide guztiek nahitaez bete behar dituzte.

Agintariei laguntza ematea

- Kooperatibak (erakunde gisa) eta bertako langile, zuzendari eta administrazio-organoetako kide guztiek **laguntza emango diete** —behar bezala eta arduraz— **agintariei**, justiziarri, erakunde publiko arautzaileei eta gainerako erakunde publikoei, eragozpenik eta trabarik jarri gabe, eta okerrik edo ez-egiterik sortu gabe. Gainera, dituzten harreman guztietan lana erraztuko diete, eta beharrezko eta/edo nahitaezko informazio guztiaren berri emango diete.

Interes-gatazkak

- **Interes-gatazkak** saihesteko, langileek, laguntzaileek, zuzendariak eta Kooperatibako administrazio-organoetako kideek ez dute interes ekonomikorik edo inolako interesik izango, eta ez dute jarduerarik egingo, Kooperatibarekin zerikusia duten enpresa edo erakundeekin. Halakorik gertatuz gero, **Zuzendaritzari jakinarazi** behar zaio, lege-aholkulariarekin batera ebaluatu eta, egoki iritziz gero, beharrezko neurriak har ditzan.
- Debekatuta dago gizabanako batek, Kooperatiban duen posizioaz baliatuta, Kooperatibaren baliabideak, botereak, influentzia edo gainerako erraztasunak erabiltzea, bere onurarako edo bere ingurune hurbileko norbaiten onurarako. Halaber, guztiz debekatuta dago gizabanako edo erakunde batek Kooperatibaren izenean edo kontura jardutea, aldez aurretik baimena lortu gabe, eta Kooperatibaren izena, bitartekoak, hirugarrenetik harremanak, posizioa edo influentzia erabiltzea, bere mesedetan edo bere ingurune hurbileko norbaiten mesedetan.

5. Kooperatibaren aktiboak erabiltzea

Kooperatibak langileen esku jartzen ditu jarduera profesionalerako behar dituzten baliabideak (telefonoa, tableta, eramangarria, Internet-konexioa, posta elektronikoa, ibilgailuak, tresnak, laneko arropa eta abar). Hortaz, Kooperatibako langileek helburu profesionaletarako soilik erabiliko dituzte enpresaren baliabideak, eta egoki, arduraz eta efizientziaz.

Ildo horretan, Kooperatibako langileek ez dituzte, inola ere, konpainiak beren esku utzitako ekipamendu informatikoak honetarako erabiliko: legez kanpoko programak, aplikazioak edo edukiak instalatzeko edo deskargatzeko, konpainiaren arauak urratzen badituzte edo haren ospari kalte egin badiezaiokete.

Langileek jakin behar dute Kooperatibako unitate eskudunek edo Kooperatibak izendatutako hirugarrenek gainbegiratu egin ditzaketela konpainiaren informazioaren teknologien sistema eta

ekipamenduetan dauden dokumentuak eta datuak, beharrezkotzat jotzen denean eta indarrean diren araudian baimenduta dagoenean.

Gainera, Kooperatibako langileen ardura da instalazioak eta ekipamenduak egoera onean izatea, haien balio-bizitza luzatzeko eta istripuak saihesteko.

6. Intimitatea, datuen babesa eta isilpeko informazioa

Langileen eta laguntzaileen **intimitaterako** eskubidea errespetatuko da. Datu pertsonalen eskaerari eta tratamenduari dagokienez, Kooperatibaren ohiko jarduerarako eta aplikatu beharreko araudia unean-unean betetzeko ezinbestekoa den informaziora mugatuko dira.

Kooperatibak beharrezko neurriak hartuko ditu, dauzkan datu pertsonalen **konfidentzialtasuna** zaintzeko, eta datu horien tratamendua eta datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko zein ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak arlo horretan indarrean dagoen legeriaren arabera gauzatzen direla bermatzeko. Kooperatibak konpromisoa hartzen du hirugarrenen **jabetza intelektual eta industrial**a babesteko.

Kooperatibaren jardueran, ezagutza eta informazio komertzialak sor daitezke, eta horien balioa zuhurtzian datza, neurri handi batean. Kooperatibako langileek diskrezioz eta profesionaltasunez erabiliko dute eskura duten informazioa, eta isilpean gordeko dute beren lanaren edukia. Nolanahi ere, ez dituzte beren mesederako erabiliko beren jardueran lortutako informazioa, datuak edo dokumentuak.

7. Osasunarekiko, segurtasunarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa

Kooperatibak beharrezkoak diren jarduketa-planak ezarriko ditu bere jarduerarekin lotutako arriskuak behar bezala kudeatzeko eta arintzeko. Plan horiek aldian-aldian berrikusiko ditu, eta mantentzeko eta hobetzeko behar diren baliabideak jarriko.

Istripuak prebenitzea eta jardueraren garapenean segurtasuna bermatzea ezinbestekoak dira, Kooperatibaren jarduerarekin batera. Langileei eta laguntzaileei prestakuntza emango zaie, beren zereginak behar bezala bete ditzaten, eta, arlo guztietan, segurtasunari emango zaio lehentasuna. Halaber, segurtasun hori bermatzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak emango zaizkie.

Kooperatibak **Lan-arriskuen prebentzio-plan** bat du, Kooperatibarentzat eta mendeko eta partaidetzako sozietateentzat, osasunarekin eta segurtasunarekin duen konpromisoa betetz.

Kooperatibak baliabide naturalak errespetatuz gauzatuko du bere jarduna, eta ingurumenaren, biodibertsitatearen eta interes ekologiko, zientifiko edo kultural berezia duten espazioen kontserbazioa sustatuko du.

Zorrotz errespetatuko da ingurumenaren arloko legeria, eta prozesurik eta teknikarik egokienak erabiliko dira jardueraren arriskuak identifikatzeko, jarduerarekin lotutako ingurumen-alderdiak (hondakinak, isurtzeak, atmosferarako emisioak...) kontrolatzeko eta txikitzeko, eta zerbitzua ematean sortzen den ingurumen-erantzukizuna bere gain hartzeko.

Onartzea eta betetzea

Kooperatiban sartzan diren edo Kooperatibako bazkide bihurtzen diren langileek kode hau jasoko dute beren lan-kontratuen eranskin gisa, eta, sartu aurretik, berariaz onartu beharko dute.

Kode honetan jasotako jokabideak **nahitaez bete beharrekoak** dira langile guztientzat, Kooperatiban gauzatzen duten jarduera profesionalean. Gainera, betearazi egin beharko dira, eta, dagokionean, ez-betetzeak salatu. **Kode hau bete ezean**, indarrean den araudiaren arabera **zehapenak ezarri ahal izango dira**, arau-hauslearen gainerako erantzukizunak eskatzeko aukera baztertu gabe.

Kooperatibak **Betearazpen Batzorde** bat du, Kode Etikoa aplikatzean sortzen diren gertakariak izapidetu eta ebazteko, baita egindako salaketak bideratzeko ere. Orobat, kode honetako jarraibide guztiak betetzen direla ere zainduko du Betearazteko Batzordeak.

Kode hau haustea edo ez betetzea eragiten duten jokabideen berri duten langileek isilpean salatu ahal izango dute, helbide elektronikoen bidez:

komunikazioa@seberaltube.net

Jasotako salaketa guztiak konfidentziasunez tratatuko dira.